

Emakumea

Ersilia Cavedagni

1899-10-28

Gizonek, orokorrean, zuzenki ala okerki, emakumeen gaineko nagusitasun intelektuala eta morala dutela baieztatzen dute. Hala bedi! Hori aitortu nahi nuke!

Nahiko modu arraroan, gizona emakumea baino garrantzitsuagozat jotzen den kasu gehienetan, ahalginik edo ia ahalginik ez zaio behar emakumearen gutxiagotasuna murrizteko eta gizonaren mailara igotzeko.

Bereziki, emaztea edo bikotekidea duten gizonen kasuetan gertatzen da. Logikoa litzateke, harrotasunetik, senarrak edo bikotekideak ahaleginak egitea berarekin bizi den emakumearen baldintza intelektualak garatu eta hobetzeko. Honen ordeztu, aurkakoa jazotzen da. Gizonak, batzuetan, emakume bat hezteko ardura hartuko balu, baldintza guztiz desberdinekoa da emakumea gizonaren bizitzako neska-laguna besterik ez denean.

Pertsonen eta giza harremanen adibide hobea izan zitezkeen anarkisten artean ere askotan gertatzen da (gehienetan ez esatearren) gaur egungo bizitza sozialean, izan ere, hainbeste desiratzen duten etorkizuneko gizartearen beren prestakuntza izan behar luke. Hain zuzen ere, gure kideek, gertaera honen inguruan hausnartzeko eta haiek bere kideei eginko bidegabekeri ugari, ez besteek baino gutxiago, bada, besteek baino erru handiagoarekin, jakitunagoak baitira, azpimarratzeko xedearekin diot diodana.

Argi eta garbi, ez al da egia hezkuntzaz arduratzen diren anarkistak, eta guztiaren gainera, bere emazte edo bikotekidea den emakumearengan jakituria anarkista eratzeko arduratzen direnak oso ezohikoak direla? Horren ordeztu, nahiz eta emakumeak desira izan, ez bestelakorik, bere burua hezteko, ikasteko, doktrinaren arrazoiak eta anarkismoaren mugimenduan sartzeko, zenbatetan erantzuten dute amorratuta, axolagabetasuna adierazten duen keinuarekin eta ia mespretxuarekin, izaki nagusiagoak usate direlakoan? *Ustez, kontu jakin* batzuetaz arduratzeko bakarrak diren horietan, emakumeak, bitartean, sukaldeaz edo etxeko beste zereginaz arduratzen diren bitartean!

Nire aburuz, honako hau da gure kide askoren akats larriena. Emakume batekin bizi diren kideek honelaxe portatzen dira, eta gehiengoak dira, zoritxarrez! Onartu beharra dut: badirudi ez direla oharitzen emakumeek gaur egungo gizartearen egiten duten eginkizun sozialaren inguruan, eta etorkizuneko gizartearen, ekarpen are gehiago egingo dituztela.

Emakumea beti izan da eta izango da familiako hezitzailea, bere seme-alaben eragin zuzenena eta garrantzitsuena izan eta izango duen huraxe, haiei lehen zurrarak, lehen iradokizunak, gizartearen lehen irizpideak jakinaraziko dizkion huraxe, azkenean, guztiaren gainera, gizarte berriaren eraikuntza osoa erabakitzeko gai izango den huraxe, baldin eta aurrerapena, askatasuna eta emantzipazioaren sentimenduak sustatzeko gai bada umeen buru eta bihotz maitekor zein garbietan.

Ez naiz jakituria ezaren ondoriozko konbentzitu gabeko emakumeaz ari, nor propaganda anarkistaren aurkari natural bezala, bere senar edo bikotekideari horretara ekiteari ukatzen baition. Askotan entzun izan diegu damaturik datozen kamaradei bere askatasunaren aurka egiten duten bikotekide zapaltzaileak izateagatik zoritxarrekoak direla esanaz, bizitza diskretu baten truke, haien arimetan dagoen suarekin kausan parte-hartzera ukatzen dieten haiek, hain zuzen. Baina, hau gertatzen bada, noren errua da, kamarada maiteok, ez bazarete zeuek? Noren errua da, ez bada zeurea, zeure bikotekidearena ez den edozein propaganda egitearren desiratzen dagoen hori? Noren errua da, ez bada zeurea, zeure bikotekidearen gaitzespenen, oztopoen, malkoen edota haserrearen aurrean erantzuteko gai ez den hori, ergel, ezjakin etab. izatearen konplimentu sinesgaitzekin batera, eta gutxienez, sinesmena eta arrazoiak uztartzen dituzten hitz lasaigarri eta gozoak erabiltzen saiatzen ez dena? Zergatik alferrikakoa dela esan? Zergatik ez zarete behintzat saiatzen?

Izaera samintzen eta giro txarra eragiten duten alferrikako kexa eta eztabaidetan denbora galdu ordeztu, gure kamaradak, beraien printzipio berberak aldarrikatzen duen emakume batekin bizitzeko zorionekoak ez direnak, familian hasiko balira lehenbiziko propaganda egiten, jantokiko mahai-inguruan edo egongelakoan, aspergarritasun eta haserrearen arteko sekulako gaubeiletan. Honek haien idealekiko egonkortasun gehiago frogatuko luke, besteak soilik ebanjelizatzen saiatu baino... bere familiarakoak ez diren horiek.

Primerakoa da kamarada batzuek beren emakumeek duten anarkista izateko nahia adieraztea, elkar bizi direlako eta beste anarkistekin harremana dutelako, propaganda, azalpen edo sinesmenik gabe. Barregarria izan daiteke: baina, nork uka dezake benetan hau maiz gertatzen ez denik?

Gustatuko litzaidake emakume batekin bizi diren, askotan, errudunak baitiren kamaradek akats eta bidegabekeri honen inguruan hausnartzea.

Ezezagunen artean propaganda zabaldu ordez, zabaldu etxean, kamaradok. Orduantxe, ohartuko zarete emakumeak ez dizuela ukatuko hitzaldietara edo bileretara joatera, eta azkenik, mugimendu anarkistan parte hartzera, eta damutu egingo da, etxeko beharrengatik zeu eta bera ere aktiboki parte hartu ezin izanagatik.

Hezi eta konbentzitu zuen emakumeei lehenik eta behin, kamaradok, haiexek baitira belaunaldi berri bat aurreiritzirik, sineskeriarik eta hutsegiterik gabe hezi eta hazi dezaketenak. Belaunaldi berria, iraganeko gaizkiaren eraginarengatik egungo zaharkitutako eta usteldutako hau baino egokiagoa izango da lur apropos eta emankorra eratzeko, bertan etorkizuneko gizarte ederra loratuko baiten.

Emakumea, orduan, kontzientzia izpi batek burua argitzen dion bezain laster, bere buruarekin hausnartu eta hari sinestaraziko dio bere burujabetzea soilik bere esku dagoela. Emakumeak, gizon batek bera emantzipatu eta aske bihur dezan ahoz gora etsita itxoiten duen bitartean, beti mantenduko da bere esaneko.

Burua altxatzeko, ez itxoin beste inork hau esan arte: altxa eta izan aske. Utzi emakumeari irmoki altxa dadin, esklabo inoiz izan ez dadin.

Ersilia

-L'Aurora, 1899ko urriaren 28a

Liburutegi anarkista

Ersilia Cavedagni
Emakumea
1899-10-28

2024ko apirilaren 4an eskuratuta hemendik: thetransmetropolitanreview.wordpress.com
Artikulu hau Estatu Batuetako *L'Aurora* aldizkari anti-antolatzailean argitaratu zen.

liburutegi-anarkista.org